

Unai Elorriagaren lanen azterketa. SPrako tranbia eta Laztanik Sakonena

(Analysis of the works by Unai Elorriaga. *SPrako tranbia* and *Laztanik Sakonena*)

Olaeta Sarasola, Andere; Rabanal Umaran, Ainhoa
Aldekoane auzoa, 1.H. 48940 Leioa

BIBLID [1137-4454 (2006), 22; 77-82]

Jaso: 04.11.14

Onartu: 06.06.16

Unai Elorriaga idazle getxotarrak argitaratutako lehen bi lanak izan dira oinarri azterketa hau egiteko: Laztanik Sakonena ipuina eta 2002. urtean Espainiako Literatur Sari Nazionala irabazi zuen SPrako tranbia eleberria. Bi testuen ezaugarri literarioen azterketa eta konparaketa eginez, Unai Elorriagaren idazkeraren bereizgarriak zehaztea da lan honen helburua. Azterketan egitura, gaia, estilo eta pertsonaien tratamendua landu dira batik bat, bi lanen ezaugarri komunak azpimarratuz.

Giltza-Hitzak: Umorea. Sentiberatasuna. Eromena. Utopia. Oroimena. Txikitasuna. Elipsia. Ahozketasuna.

Los dos primeros trabajos publicados por el escritor getxotarra Unai Elorriaga han servido de base para la realización del presente estudio: el cuento Laztanik Sakonena y la novela SPrako tranbia (Un tranvía en SP) ganadora del Premio Nacional de España de Literatura del año 2002. El objetivo del trabajo es determinar los rasgos distintivos del estilo de Unai Elorriaga por medio del análisis y comparación de las características literarias de ambos textos. En el presente estudio ante todo se profundiza en la estructura, tema, estilo y tratamiento de los personajes, al tiempo que se señalan las características comunes de ambos trabajos.

Palabras Clave: Humor. Sensibilidad. Locura. Utopía. Memoria. Pequeñez. Elipsis. Oralidad.

Les premiers travaux publiés par l'écrivain de Getxo Unai Elorriaga ont servi de base pour la réalisation de cette étude : le conte Laztanik Sakonena et le roman SPrako tranbia (un tram en SP) gagnant du Prix National d'Espagne de Littérature de 2002. Le but du travail est de déterminer les traits distinctifs du style d'Unai Elorriaga au moyen de l'analyse et de la comparaison des caractéristiques littéraires des deux textes. Dans cette étude on approfondit avant tout dans la structure, le thème, le style et de traitement des personnages, en même temps que l'on signale les caractéristiques communes des deux travaux.

Mots Clés: Humour. Sensibilité. Folie. Utopie. Mémoire. Petitesse. Ellipse. Oralité.

SARRERA

Gure lanean Unai Elorriagaren lanak aztertuko ditugu, Narratibako Sari Nazionala irabazi baino lehenagoko ipuina (“Laztanik sakonena”) eta saritutako eleberria (*SPrako tranbia*). Egitura aldetik egin dugu azterketa, maila ezberdinak jorratuz: pertsonaiak, fokalizazioa, espazioa, denbora, narratzaila...

Bai “Laztanik Sakonena” bai *SPrako tranbia* zahartzaroaren eta eromenaren inguruan girotuta daude, Unai Elorriagaren beraren esanetan, gaia biziki interesatzen zaiolako.

SPrako tranbiak gizon zahar baten, Lucasen, eromen prozesua kontatzen du modu hunkigarri eta era berean ironikoan. Bere bizitzaren bukaeran, Lucas ilusioez eta utopiaz bizi da; Shisha Pangmara igotzea, bere emazte hilarekin tranbian bidaiatzea, anaia ikustea... Pertsonaia nagusiaren inguruan beste asko biltzen dira: bere arreba eta etxean sartu zaien musikari bat aspaldian hildako pertsonaiekin nahasten dira: Lucasen anaia, emaztea, Matias...

Estiloari dagokionez, kaotikoa eta inkoherentea da, hari nagusirik gabe, pertsonaien barne munduan murgilduz irakurlea bereganatzen du bukaeraraino. Eguneroko bizitzako txikitasunak berebiziko garrantzia du. Errealak eta magikoa nahastu egiten du eta egituraren aldetik ez du hasiera eta bukaera definiturik; honegatik, adituek Borges, Rulfo eta Cortázarren eragina ikusi diote.

Azaletik egitura errazekoa, baina sakonean konplexua eta landua da. Hizkera espresiboa du, baita ukitu poetikoa ere.

Tragedia bat umorez azaltzen du; baina ez da umore krudela, hunkigarria eta humanitatez bete da baizik.

SP-RAKO TRANBIA-REN AZTERKETA

Egitura aldetik, atalka eginda dago, nolabait desegituratuta. Atalak argi desberdinduta daude, eta bakoitzaren hasieran honen berri ematen digu.

Atalak bi parametroren arabera banatuta daude: zein pertsonaia den protagonista eta ekintza edo gogoeta den.

Pertsonaiaren arabera banatuta dagoenean, bere izena agertzen da atalaren hasieran. Ekintza eta gogoeta metafora baten bidez azaltzen da; ekintzak *Egun Argia*-n gertatzen dira eta gogoetak *Iluntzea*-n.

Narratzailea lehen zein hirugarren pertsonan agertzen da. Lehen pertsonan agertzen denean istorioko pertsonaia desberdinak izan daitezke: batzuetan Maria, beste batzuetan Lucas, edo Marcos... Eta atalaren hasieran pertsonaiaren izena agertzen da (*Mariaren ipuina*, *Lucasen ariketa*...).

Iluntzean, Egun Argian eta tarteko ataletan narratzailea hirugarren pertsonan azaltzen da.

Fokalizazioari dagokionez, etengabe aldatzen da, lehenago aipatutako arrazoiengatik.

Lucasen gaixotasuna dela eta, denboran prolepsiak eta analepsiak egiten dira, oroimena, errealitatea eta ilusioak nahastuz. Ondorioz, narrazioa inkoherentea, zatikatua eta eszenaka egiten da. Ez du haririk jarraitzen, ez du hasiera eta bukaera finkorik (ez da batere lineala).

Pertsonaiek pisu handia dute eleberrian. Ekintzak bigarren plano batean utzita, pertsonaia bakoitzaren munduan murgiltzen da. Hauen deskribapena da istorioaren oinarria. Modu ez-zuzenean deskribatzen dira pertsonaiak, detaileen bidez hauen irudi oso zehatza egiten delarik.

Pertsonaia batzuek narrazioan parte hartzen dute eta hauen bidez dugu beste batzuen berri; adibidez, Lucasek ematen digu bere emaztearen berri eta Mariaren bidez bere aita ezagutzen dugu.

Pertsonaia bakoitza espazio jakin batekin lotzen da: Maria komunarekin, Lucas egongelarekin, Marcos kalearekin, emaztea tranbiarekin...

Bi espazio mota daude: istorioaren agertoki direnak eta pertsonaien irudimenak ekarritakoak. Lehenengoak espazio urbanoak dira (kaleak, ospitalea, etxea...). Ez da leku finko batean kokatzen, edozein hiri izan liteke. Besteak Lucasen oroimenak eta irudimenak ekarritakoak dira: Himalayako mendiak, tranbia... Mendiak egiteko geratu zaiona errepresentatzen du eta tranbiak bizi izan duena.

Pertsonaien barneko espazioak kanpokoak baino garrantzi handiagoa du; bakoitzak nola ikusten dituen espazioak, zer gogoratzen duen, zer gustatzen zaion...

Umoreak garrantzi handia du eleberrian. Pertsonaiek beren egoeraz eta tragediez egiten dute barre; baina ez da umore krudela, samurra eta ironikoa baizik. Hala ere, ez da umorezko nobela bat; ikutu ironikoa ematen dio egoera tragiko bati. Batez ere Lucasen eta bere arrebaren arteko harremanean ikus daiteke.

Pertsonaien bizitzen motorea utopiak dira. Lucasek bere emazte hilarekin tranbian bidaiatu nahi du eta Shisha Pangma mendia igo; ilusio horrekin bizi da nahiz eta jakin inoiz ez dela beteko. Maria trenetik trenera doa, behin sentitutako emozio baten bila.

Inoiz beteko ez diren utopiak oso garrantzitsuak dira eta pertsonaiek beteko balira bezala hitz egiten dute, nahiz eta jakin ezin bete daitezkeela.

Idazkera oso espresiboa da, sentiberatasunez betea. Espresio formula oso zuzenak erabiltzen ditu eta narrazioa naturaltasunez betea dago. Pertsonaiak oso era arretatsuan tratatzen ditu eta bakoitzari hitz egiteko modu bat ematen dio.

Idazlea pertsonaien barne-munduan eta harremanetan murgiltzen da txikitaskuna eta eguneroko bizitzan oinarrituz. Xehetasun guztiei erreparatzen die, eta eguneroko gauzak bihurtzen ditu kontakizun. Hari narratiborik gabe, hau da, irakurlearen atentzioa bereganatzen duena.

Literaturaren barnean literatura sortzeaz hitz egiten da, pertsonaien idazketa prozesuak kontatzen baitira.

Intertestualitatea ere aurki daiteke: Mariak Rulfo irakurtzen du.

LAZTANIKI SAKONENAREN AZTERKETA

Ipuinean desorientaturik dagoen gizon baten eta bere inguruan dauden zaharren arteko erlazioaz hitz egiten zaigu. Gizon honek ez du batere argi zein adin duen, zer egiten duen zaharren egoitzan, zenbat denbora daraman bertan...

Narratzaileak lehenengo pertsona hitz egiten du eta pertsonaia nagusia da (estradiagetiko homodiegetikoa).

Protagonistaren gaixotasunarengatik, fokalizazioa etengabe aldatzen da; pertsonaia honek gauza asko besteen esanengatik baitakizki. Fokalizatzailea beti istorioaren barneko norbait denez, barne-fokalizazioa da.

Pertsonaiek dute lehentasuna ekintzen gainean. Oso era arretatsuan tratatzen ditu eta pertsonaia biribilak dira.

Hizkera deiktikoa da. Pertsonaiek hizkera desberdinak dituzte. Narrazioa euskara batuan egiten da eta pertsonaiek bizkaitarrez hitz egiten dute.

Protagonistaren osasun mentala dela eta, kontakizunean prolepsiak, analepsiak eta elipsiak egiten ditu.

Errepikapenezko mintzaldia da, hasieran eta bukaeran ekintza bera kontatzen zaigu.

Espazioa estatikoa eta itxia da. Espazio urbanoa da, ezaguna baina zein den zehaztu gabe (edozein lekuko zaharren egoitza izan liteke).

Idazkera oso eliptikoa da eta detaileen bidez irakurleari oina ematen dio istorioa osatzeko.

KONPARAKETA

Lehenik eta behin, gaian dagoen paralelismoa aipatu behar da. Istorio biak belaunaldien arteko harremanetan murgiltzen dira. Bietan pertsonaia nagusiek gaixotasun mentala dute eta honen ondorioz, memoria falta. Hala ere, bietan oroitzapenek garrantzi handia dute; benetan gogoratzen dutena eta asmatu egiten dutena nahasten direlarik.

Ez batak ez besteak ez dute hari narratiborik eta pertsonaiek dute kontakizunaren pisu guztia. Pertsonaiak xehetasunen bidez deskribatzen dira eta eguneroko bizitzak berebiziko garrantzia hartzen du.

Denbora ez da batere lineala, zatika eginda daude eta irakurleak puzzle bat balitz bezala antolatu behar du kontakizuna, ageri ez diren zati batzuk osatuz. Horregatik oso irakurle aktiboa eskatzen dute kontaketa biek.

Zahartzaroarekin eta gaixotasunarekin lotutako espazioak agertzen dira bietan (ospitalea eta zaharren egoitza). Protagonisten irudimenak eta oroimenak beste leku batzuetara eramaten gaitu: mendietara, futbol partiduetara, tranbietara...

Ez batak eta ez besteak ez dute eskema aktantziala betetzen; esan daiteke tradiziozko ipuinetatik nahiko urrun daudela. Ez du formula finkorik betetzen: ez dago hasiera, korapilo eta bukaera definiturik; ez dago gizartearen legeen hausturarik ez eta honek dakarren irakaspenik; eta azkenik, ez dago igorlerik, ez aurkaririk, ez objekturik...

Tradizioarekin lotzen dituzten ezaugarri bakarrak ahozko hizkera eta errepikapenak dira.

Fokalizatzailea lan bietan aldatzen da, baina modu desberdinean: "Lastanik sakonena" ipuinean, era ez-zuzenean; pertsonaiak besteen bidez baitaki berak egin duena. *SPrako tranbian* modu zuzenagoan egiten da, hitz egiten duen pertsonaia bera ere aldatu egiten baita.

Narrazio bietan pertsonaia bakoitzak hizkera desberdina du; baina "Lastanik sakonena" ipuinean nabariagoa da, nahiz eta ipuina euskara batuan egon, pertsonaiek bizkaitarrez hitz egiten dutelako.

GURE IRITZIA

Gure ustez, narrazio biak oso paraleloak dira, baina *SPrako tranbiak* idazketan gehiago esperimentatzen du. Ematen du lehenengoa bigarrenaren saioa dela.

Gaiari dagokionez, eleberri interesgarria iruditu zaigu bioi; ez genuen espero idazle gazte baten lanean horrelako gairik aurkitzea. Harritu egin gaitu horrelako egoera dramatikoak hain samurki tratatzea.

Egituraren aldetik, zailagoa egin zaigu “Laztanik sakonena” *SPrako tranbia* baino. Azken horretan desordenaren barnean antolakuntza bat badagoelako. “Laztanik sakonena” *kaotikoagoa* dela uste dugu. Lehen irakurketa batean eleberrian *kokatzen* gara eta ipuinean ez dakigu hitz egiten ari dena nor den eta zer egiten duen ere. *SPrako tranbian* badakigu noiz ari den oroitzen eta noiz errealitateaz hitz egiten; baina “Laztanik Sakonena”n, biak nahastu egiten dira azalpenik eman gabe.

BIBLIOGRAFIA

ELORRIAGA, Unai (2001), *SPrako tranbia*, Donostia: Elkar.

KORTAZAR, Jon (2000), “Kontakizuna Bilbaon”, in Kortazar, Jon (bil.), *Bilbao ipuin biltegia*, Irun: Bilbaoko Udala-Alberdania.

